



EUSKO  
IKASKUNTZA  
Asmoz ta Jakitez

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

1

# 2025eko deialdia Inprimaki arautua

**OHAR GARRANTZITSUA.** Norberaren datuak babesteko indarrean dagoen legeria betez, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dizu bilduriko norberaren datuek tratamendu informatizatua izango dutela sariaren helburua kudeatzeko. Orobat, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten du sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituela fitxategiaren arduradunaren aurrean, dela posta elektronikoaren bidez [ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus](mailto:ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus), dela posta arruntaren bidez, erakundearen helbidean: EI/SEV Norberaren Datuen Arduraduna, Bergara, 19. 20005 Donostia.

## AURELIA ARKOTXA

(Baigorri, 1953). Filologia hispanikoa ikasi zuen eta egun Bordeleko literatur teoria eta euskal literaturako irakasle katedradun ohia da. Iker-CNRSko ikerlaria da eta 2007z geroztik Euskaltzain oso. 1993an *Imaginaire et poésie dans "Maldan behera" de Gabriel Aresti 1933-1975* (ASJU) tesiarekin doktoratu zen eta Iparraldeko egile garrantzitsuei buruzko ikerketak burutu ditu, hala nola, Ziburuko Etxeberri, Bernard Etxepare edo Martin Goihetxez. *Maiatz* aldizkariko sortzaileetako bat izan zen eta lehen poemak bertan argitaratu zituen 80etan. Geroztik prensa-kolaborazioak egiten ditu *Maiatz* zein *Berrian*, eta *Erlean* ere bai berriki.

Ana Urkizaren hitzen arabera (2006, 122), "bidaiaria, geografía anitzetakoa, kultura, eta artista garaikoa" da. Ezin hobeto definitzen ditu lerro horrek Arkotxa poetaren gaiak eta ezaugarriak: batetik, ibiltari izaerak kokapen ugariko hitz poetiko hausnarketaria bilakatu du bere poesia, eta bestetik, behaketari emana da eta oso sentibera instantearen ekarpenarekiko. Ordea, iraganaren oroimena beti dago presente bere testuetan, hitz galduak edo ahantziak berreskuratzeko asmo eraikitzaileaz, iragana hizkuntzan geratzen dela sinetsia baitu.

Ezaugarri literario propioa du fragmentuarekiko zaletasuna, inguru kultural aberats batean erroturiko testu-zatiak moldatzen ditu, haien baitan adierazten dena hizkera iradokitzaileaz jantziz, eta esanahia guztiz itxi gabe. Hala, *Fragmentuak* (2009) izeneko liburua osatu zuen, eta *Bazterrez* (2009) izeneko mintzaldia irakurri zuen Euskaltzaindiaren sartze-ekitaldian.

Ilustrazio eta karte horituriko liburuak argitaratu ditu, eta bere testuetan kolore eta argiaren matizazioarekiko sentiberatasun berezia adierazten du; izan ere, Ana Urkizari esan zion moduan, "ene izpirituan, idaztea eta marraztea ez ziren sobera bereizten" (2008,135). Aipatu dituen ideia poetiko horiekin bat datozen erreferentziak askotarikoak dira: Li Po, Emily Dickinson, Tahar Ben Jelloun edota Ovidio, besteak beste. Bere idaztancerak ezaugarri liriko nabariak ditu, eta bikain sortzen ditu indar sensorial handiko giroak. Bere estetizismoa landua da eta kulturalismoa dario, izan ere, mota askotako erreferentzia literario eta piktorikoak daude lehen liburuan (Klein, Magritte, Kandinsky, Carpaccio...); eta bigarrenean iragan mendeetara edota geografía urrunetara jotzen du. Halere aipu eta erreferentziak sentiberatasun pertsonal fin-finarekin elkartzen ditu egungo gure orainarekin eta hausnarketa sakonagoetara bideratzen.

Bi lirika liburu argitaratu ditu: Lehena, *Atari ahantziak* (1993). Juan Mari Lekuona poetak gogoberoturik eman omen zuen ezagutzera. Hastapeneko atalean igartzen da gehienik Lekuonaren *Ikonoak eta mimodramakeko* kidesunetik, izan ere "Dundu" poeman, Lurraren gaineko bizitzaren "aro ixilduak" ekartzen baititu gogora, eta gizakiaren "oin-hutsen erreto luzea"z hausnartzen. Izenburuak iradoki moduan, hiru atari paratu zuen: "Saturnaro", "Circumambulatio" eta "Ibisaren urratsa". Giza bizitzaren sortze eta garatze minkorra dakar gogora Saturnaroan, hizkera mitikoaz "Laugarren zaldizkoa" aipatzen duelarik, eta haren ondotik, gerlak edota Hiroshimako bonbaren gisako hondamendiak. Poeta ez da, ordea, oroitzapen mailan geratzen, aitzitik, gaurko izakien intimitatean errotua dago iragan hori, gertaera tragikoen doluak guregan dirauela baietsiz. Itsas giroa da nagusi lehen atal horretan, eta "Planeta bluieko gizonari" poema, esaterako, Yves Klein (1928-1962) pintorearen margolanen ildoan geratzen du, bere sentiberatasun kromatikoaren lekukotza bizia eskainiz eta koloreen sinbolismoaz hausnartuz. "Circumambulatio" atalean itsas girotik Nafarroako Erriberako lur emankorretako atarira egiten du

poetak, haur eta gazte garaiko sentsazio bipilak iradokiz, kolore beroez. Oroitzapenen atal hau ere, ordea, ez da beti ezti eta argia, “Magritten orhoimena” izenekoan, adibidez, margolari belgiarraren “La memoire” laukiaren ekfrasiaz (1948), giza oroimenean dirauen sufrimendua iradokitzen du, eta poetaren baitako melankoliarekin bat egiten. Azkenik, “Ibisaren Urratsa” izeneko hirugarren atarian, berriro itsas aurrean, maitasuna hartzen du ardatz gisa. Horren lekuko xume gisa hautatu dugu “Nausikaa” izeneko poema, atalasean berean kokaturikoa.

*Septentrio* (2001) izenekoa da Arkotxaren bigarren liburua. Bidaia esploratzaileen inguruko material zatiak egituratzen ditu (kronika puskak, deskripzioak, narrazioak, mapa zaharretako oharra eta abar), eta zati horiekin batera amaieran, zenbait poema gehitzen ditu, osotara narrazio poetiko iradokiorra osatuz. Testu guztien izenak latinez emanak dira, izenburua bezalaxe, kartografiaren arau zahar bati atxikiz. Idazlan hori moldatzen ari zelarik, hitzaurrea idatzi zion Kenneth White ezagutu zuen eta haren *Le plateau de l’Albatrosen* eragina jaso zuen, bere burua geopoetika deritzan korrontearen ildoan jarriz. Hartara, mapa poetiko berrien ekarpena egin dio euskal literaturari, Ipar Atlantiko ozeanoaren nabigazioaren poetikan sakonduz bereziki.

Arkotxak dioenez (2008) liburu honetan, geroago *Fragmentuak* eta *Bazterrez* lanetan bezalaxe, Jean-Yves Tadié *Le recit poetique* (1978) liburuan definituriko genero hibridoak garatzen du: narratiba eta lirikaren artean dagoen diskurtsoa. Hala, 1994an Kanadako Quebec aldera eginiko joan-etorriak ditu kontagai muin-muinean, baina hainbat nabigatzailearen harat-honatak ere gogoan izanik. Lehenengo atalak “Oriens” du izenburu, eta adibidez, Marko Poloren ametsa ipuina ageri da, eta jarraian “Sine nomine”n, Iohan Mandabillakoaren alegiazko eskuizkribuaren transkribapena egiten du, bien arteko zenbait konfluentzia iradokiz. Bigarren atalean, “Peregrinatio” izenekoan, Labradorko eta Ternuako lurretan zeharreko bidaiaren narrazio lirikoa dator. Azkenik, “Mare magnum fine” ataleko poemek aurreko bien inguruko hausnarra dakarte, bidaien oroimenaren arrastoa gaur egun zein den sumatu nahiz. Liburu honetatik, Peregrinatio “2 Outportua” deritzan prosa poetikoa hautatu dugu, eta azken ataleko “IV: Baccalearum” eta “IX” Americae Nova Tabula” poemak, elkarren osagarri direlakoan.

## Testuak

- Planeta bluieko gizonari
- Magritten orhoimena
- Nausikaa
- 2 Outportua
- Baccalearum
- Americae Nova Tabula

## Bibliografia

Arkotxa, Aurelia (1993) *Atari ahantziak*, Pamiela.

Arkotxa, Aurelia (2001) *Septentrio*, Alberdania. Itzulpenak: gaztelaniaz (Alberdania 2006)/ frantsesez (L’Atelier du Héron 2007)

Arkotxa, Aurelia (2008) “Hitzaren memoria” in Urkiza, Ana, *Zortzi unibertso, zortzi idazle*, Alberdania, 120-169.

## Planeta bluieko gizonari

*Ce qui m'intéresse, c'est les cendres. Y. Klein*

Hartu zinuen pintzel bat, tinda bluiean trenpatu eta kolore dirdiratsuekin has zinizkion emazteari izterrak tindatzen, sexoa, sabela, bularrak. Zure marka osoki eman arte. Inprimatu zen haren gorputz bluia mihisean. Haragi tindatua ongi zapatu zen tokietan, larruaren zimurrak pakidermo batenak bezala agertu ziren izara garbian geografía fantastiko bat sortuz. Bluibluia.

Eta ni, zure bluian sartu nintzan aspaldidanik igurikatzen nuen kontinente ezezagun ezagun batean bezala.

Kolore arraro hori jastatua nuen jadanik Giottoaren zeruetan, Kandinskyren zaldizko bluiean, tatamietan, erreka bazterreko zenbait orhoit-lilietan. Bainan zurekin bluiak kuadrotik ihes egin nahi zuen, mugak puskatu.

Haur sortu berri sartu nintzan zure itsasoan.

Belogi blui harekin, itsas-zolan ebatsi izaki borobil bitxi harekin, pintatu nuen ene gorputza. Idetsi nuen kolore bluia zainetan ixuri zitzaitan. Sumatzen nuen edari lodia zariola ene barnean. Itsas-zerumugan edan zintudan.

Zure begi beltzak bluitasunak ito. Uhain ikaragarriak zure bihotza zartarazi. Bihotza belogitu. Hogeitamalau urte lur huntan.

Bluibluia atxeman omen zautzuten, Klein.

## **“Magritten orhoimena”**

Segitzen du zuzen. Lehendabiziko gurutzeraino. Zain gorri zabalaren poltsua suma dezake gorputz ikaragarri baten sabelean izan baledi bezala. Ibilbideetako farolek eta autoen argiek izarren dirdira itzaltzen. Zerua ezakusa ongi. Eta dena bapatean ilun baledi?

Marbre xurizko aurpegi ezti hura, begiak hertsia, barneko nirvanan galdua. Odola poltsuaren lekuan. Lau erreka nimiño matel xurian beheti ixurtzen. Ondoan. haizeak laster eramanen duen hostoa eta borobil xuria. Erdian marra.

Karrika bakarretan, zikinuntzi berdilunak ateraiak. Gatu baten miaua. Auto geldi hustuen lerrokada. Parkearen bila dabila. Gauaz.

Ohartu gabe, ailegatzeko da bilatzen zuen plaza tipi hartara. Plazaren erdiko lorategiñoa alegeratzen du kristalezko xuxurlak. Lehoi buru gastatutik ixurtzen ura. Alki berdearen bizkar hotzaren kontra itzulirik borobilkatu...

Eta lokartu iturri xaharraren gerizan...

Goizeko iduzki-sortze arrosindioaren dirdirak idetzarri artio.

## **Nausikaa**

Marmol xurizko zutabeen artean  
nindagon aspaldi zure esperoan  
mila urte honetan gaztelu xurian  
nindagon zure begi ibaiak gogoan

Bide bazterreko mugarri gainean  
nago egun bakarrik haize basa latzean  
mila urte honetan bidegurutzean  
egun nago zu gabe eremu hutsean

*Zihoazen hedoiak  
flamenko arrosak  
pelikano argiak  
ibis sakratuak*

*Zeramatzan urak  
desira laranjak  
lillura urdinak  
amets esmeraldak.*

## 2 Outportua

### *Santa Mariako xori zuriak*

*Iaquitecoduçu Santa Mariaco buruan edo  
Plaçençaco buruan by lecoa çabal badire  
Bachac batçuec agueriac eta bertceac esta-  
liac guardia emanendioçu hetarat ioatetic.  
Piarres Detcheberry Dorre*

Itsasargiaren marrumak urratu zuen laino zuria. Eta berriz hasi zen. Eta isildu bezain laster, berriz orroa entzuten zen. Guzua isiltasun zuriz emokatua zelarik, lanbro tanta ñimiñoek sistatzen zuten aurpegia. Lainoaren bihotzetik zetorren turuta berdinegiak ikara sorrarazten larruan. Iduri zuen aspaldiko ontzi galduen dei burutik ezin kenduzkoa.

Deien arteko isil-guneak berdinegiak ziren. Ageri zen, hobeki erran usmatzen zen, itsasargi gordean ez zegoela zaintzailerik. Itsasargia, ager, desager. Haren marruma ozena altxatzen zen eta isiltzen. Halaber, itzulika eta itzulika zebilen dorreko argia, Cape St. Mary'sko harresi ikaragarrien kontra zartzatzeko lanjerrean zebiltzan ontzien abisatzen.

Urratsek joan ahala harresiaren hegitik zihoan bidexka agertarazten zuten. Taula bat, larderiazko hitz batzuk igelesez, bidaiaria eskuinetik ziren harresietara hurbil ez zedin. Itsasargiaren marruma gero eta ozenago entzuten zen. Haizeak uzkailliak zituen hiru aluminiozko balde huts belarrean botaiak. Ja dorrearen azpira helduz, ganean argia itzulika eta itzulika zerabilen. Batzuetan, erlaino esnetsu mugikorrek argia hitsarazten zuten. Lainozko hesitik jiten zen marruma orain ikaragarria zen. Ematen zuen nehork ez zuela ja isilarazten ahalko.

Eta argia itzulika, itzulika.

Harresiaren muturreraino zihoan bideari jarraikiz, itsasargia eskuinean uzten zen.

Eguzki izpi ahulek zilatu zuten aire zuria. Gibelera heldu ziren bidaiari bakar batzuk gurutzatzen ziren orain. Lainoa han-hemenka airatzen hasia zen eta eskuinetik ikus ziratekeen itsas blu indigoan sartzen ziren inguruetakoko harresien mihi gorrixka ikaragarriak.

Harresiaren muturrera heltzean, inguruetakoean kokatuak ziren brokuen zurrumurru izigarria entzuten zen. Eguzkiaren beroak iheska igorri zituen azken lainoak eta xori zuri handien ongarriaren urrina azkartu zen ere. Orain ongi ikus zitezkeen. Milaka ziren, denak elkarren kontra, elkar hunkituz, lepoak luzatzen zituztela, moko luze hori finak zabaltzen zituztela. Guraso batzuek hauts kolorezko ume malestrukak ahal bezainbat zaintzen zituzten beren sabelen beroan.

Agorrila zen Avaloneko lur besoan. Xori zuri lerdenei aste guti gelditzen zitzairen umeen hazteko eta, bidaia luzea hasi aitzin, eguzkiz asetzeko. Laster etorriko zen hego urrunetako lurraldeetara hegaldatzeko tenorea.

Laster, neguko hormamendi alimaleek eragotziko zuten itsasoa.

Leku honi, 1677an eta lehenago, Santa Mariako Burua edo Burua, bakarrik, zeritzaten Lapurdiko marinelek.

Hala dio Donibane Lohitzuneko Piarres Detcheberry Dorre, Xukerrenoko nagusiak, bere itsas-liburuan.

## **Baccalearum**

*(Peter Apian, Cosmographia, 1545)*

1713 Plazentzia  
Lapurdikoko ontziek  
harri kolore ederrezko hondartza  
betiko uzten dute  
uraren bertze aldera badoaz  
Joannis de Hiriart  
Gannis de Sale  
Piarres Detchegaray  
lauzetan zizelkatu  
hiru harrizko izenak  
O'Reilly Heritage House-aren  
lehen estaiako pinozko tauladaren gainean  
ikus daitezke  
laugarren harrizko izena  
Ioannes de Suigaraychipi  
Croisic  
kortsario ospetsuarena  
1694an Farrillonon Ingelesek hilarena  
herriko erakustokian da  
bitrina baten gibelean  
hautsia

## **Americae Nova Tabula**

*(Willem Janszoon Blaeu, 1630)*

Lur Berrietarik azken itzuliek diotenez Martin  
Hoyarzialekoaren ontzia Plazentziako portu  
-tik lau legoatan eta Burutik bortz legoatan  
den Amigaizeko puntari hurbil ikusia izan da  
han diren errekistetan hondoratzeko arriskutan.



## Aurélie Arcocha-Scarcia (UBM)

Katedradun Emeritua

Harremanak:

IKER UMR 5478-CNRS

ARGITALPENAK (DIALNET BILATZAILEAK ESKAINIRIKO INFORMAZIOAREN ARABERA)

Ikus

[https://dialnet.unirioja.es/buscar/documentos?querysDismax.DOCUMENTAL\\_TODO=AURELIA+ARCOCHA&registrosPorPagina=20&camposOrdenacion=%7BDOCUMENTAL\\_SORT\\_ANYOPUB%3DDESC%7D&inicio=41](https://dialnet.unirioja.es/buscar/documentos?querysDismax.DOCUMENTAL_TODO=AURELIA+ARCOCHA&registrosPorPagina=20&camposOrdenacion=%7BDOCUMENTAL_SORT_ANYOPUB%3DDESC%7D&inicio=41)

### Haur-gazte literaturako genero estereotipoen eragina iparraldeko curriculumean

- 

Idoia Rodriguez Mondragon

Tesis doctoral dirigida por Aurélie Arcocha Scarcia (dir. tes.), Miren Gurutze Ezkurdia Arteaga (dir. tes.). Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea (2023).

- 

Resumen

- 

Tesis en acceso abierto en: ADDI



- 

**Jon Casenave:** literaturaz amoroski

Aurélie Arcocha Scarcia

Lapurdum: euskal ikerketen aldizkaria, ISSN 1273-3830, Nº. 24, 2023 (Ejemplar dedicado a: Jon Casenaveren omenez / Mélanges offerts à Jon Casenave), págs. 5-11

- 

Texto completo

- 

### Creación, traducción, autotraducción

coord. por Olga Anokhina, Aurelia Arcocha Sgarcia

Iberoamericana : Vervuert : Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia, 2023. ISBN 978-84-9192-330-5

Ha sido reseñado en:

**Reseña: Creación, traducción, autotraducción**

Xosé Manuel Dasilva

Mutatis Mutandis: Revista Latinoamericana de Traducción, ISSN-e 2011-799X, Vol. 17, Nº. 2, 2024, págs. 496-500

- 

**Autotraducción literaria en el País Vasco peninsular:** cuadro general y aproximación genética a la poesía de Juan Mari Lekuona

Aurelia Arcocha Sgarcia

Creación, traducción, autotraducción / coord. por Olga Anokhina, Aurelia Arcocha Sgarcia, 2023, ISBN 978-84-9192-330-5, págs. 239-270



**Territoires, Langues, Littératures & Cultures:** Confrontations, lectures, translations

Aurélie Arcocha Scarcia (ed. lit.), Hervé Le Bihan (ed. lit.)

Tir CRBC Rennes-2 Université européenne de Bretagne : Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia, 2022. ISBN 978-84-125463-4-7

---

**Euskaldun gorputz sendo ta bihotz ezti versus Euskaldun guduzale:** Jon Miranderen pentsaera poetiko-politikoari buruzko gogoetarako elementuak

Aurélie Arcocha Scarcia

Egan: literatura aldizkaria, ISSN 0422-7328, N<sup>o</sup>. 3-4, 2021, págs. 77-107

- [Texto completo](#)

### **Archu Pedagogiaz**

Aurélie Arcocha Scarcia

hik hasi: euskal heziketarako aldizkaria, ISSN 1135-4690, N<sup>o</sup>. 239, 2019, pág. 42

- [Texto Completo Ejemplar](#)

### **Aspectos de la gramatización antigua de la lengua vasca Humanismo, reformismo e imprenta (1545-1596)**

Aurélie Arcocha Scarcia, Joseba Andoni Lakarra Andrinua

Lengas: revue de sociolinguistique, ISSN 0153-0313, N<sup>o</sup>. 86, 2019

- [Texto Completo Ejemplar](#)

### **Palmen herria**

Aurélie Arcocha Scarcia

Egan: literatura aldizkaria, ISSN 0422-7328, N<sup>o</sup>. 1-2, 2019, págs. 131-138

- [Texto completo](#)
- 

---

### **Mendiz mendi, Oxobi**

Aurélie Arcocha Scarcia

Erlea: 1700en aldizkaria, ISSN 1889-7576, N<sup>o</sup>. 12, 2018, págs. 118-120

### **La autotraducción en el proceso de creación de Mimodramas e iconos (JM Lekuona, 1990)**

Aurélie Arcocha Scarcia

Litterae vasconicae: euskeraren iker atalak, ISSN 1132-0702, N<sup>o</sup>. 16, 2017, págs. 143-152

- 

---

**Euskal literatura garaikidea kritika genetikoaren argitan:** Aresti, Sarrionandia, Saizarbitoria eta Atxagaren idazlanen sorkuntza prozesua aztergai

Mikel Ayerbe Sudupe

Tesis doctoral dirigida por Aurélie Arcocha Scarcia (dir. tes.), María José Olaziregi Alustiza (dir. tes.). Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea (2016).

Ha sido reseñado en:

**“Euskal literatura garaikidea kritika genetikoaren argitan: Aresti, Sarrionandia, Saizarbitoria eta Atxagaren idazlanen sorkuntza prozesua aztergai”. Tesiaren egilea: Mikel Ayerbe Sudupe.**

**Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Tesi-zuzendaria: Maria Jose Olaziregi eta Aurélie Arcocha-Scarcia**

Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria, ISSN 1130-5738, ISSN-e 3020-5115, N<sup>o</sup>. 103, 2017, pág. 97

- [Tesis en acceso abierto en: ADDI](#)

### **Loti, baratzeko itzalean**

Aurélie Arcocha Scarcia

Erlea: 1700en aldizkaria, ISSN 1889-7576, N<sup>o</sup>. 9, 2015, págs. 60-65

- 

---

**En el taller del escritor:** génesis textual y edición de textos  
coord. por Aurélie Arcocha Scarcia, Javier Lluch-Prats, María José Olaziregi Alustiza  
Universidad del País Vasco = Euskal Herriko Unibertsitatea, 2010. ISBN 978-84-9860-352-1

Ha sido reseñado en:

**ARCOCHA-SCARCIA, Aurélie; LLUCH-PRATS, Javier y OLAZIREGI, MariJose (eds.). En el taller del escritor. Génesis textual y edición de textos. Bilbao: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, 2010**

- Natalia Vara Ferrero

- Revista de literatura: España, ISSN 0034-849X, Tomo 73, Nº 146, 2011, págs. 638-641

- 

---

**Bistak**

Aurélie Arcocha Scarcia

Erlea: 1700en aldizkaria, ISSN 1889-7576, Nº. 2, 2010, págs. 41-43

- 

---

**Martin Goyhetcher-ren alegien peritestuak:** "nota" eta "hitztegui"

Aurélie Arcocha Scarcia

Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo: International journal of basque linguistics and philology, ISSN 0582-6152, Vol. 43, Nº. 1-2, 2009 (Ejemplar dedicado a: Beñat Oihartzabali gorazarre - Festschrift for Bernard Oyharçabal), págs. 67-96

- [Texto completo](#)

**Writing in Basque in a Global Space from the Periphery**

Aurelia Arcocha Sgarciá

Writers In Between Languages:: Minority Literatures in the Global Scene / coord. por María José Olaziregi Alustiza, 2009, ISBN 978-1-877802-90-4, pág. 27

- 

---

**Vallis Clausa**

Aurélie Arcocha Scarcia

Erlea: 1700en aldizkaria, ISSN 1889-7576, Nº. 1, 2009, págs. 94-95

- 

---

**"Linguae Vasconum Primitiae"-ren peritestuak eta euskararen gramatizazioaren primicias**

Aurélie Arcocha Scarcia

Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo: International journal of basque linguistics and philology, ISSN 0582-6152, Vol. 42, Nº. 2, 2008, págs. 1-68

- 

---

**Bazterrez. Sarrera-hitzaldia**

Aurélie Arcocha Scarcia

Euskera ikerketa aldizkaria: Revista de Investigación de la Real Academia de la Lengua Vasca, ISSN 0210-1564, Liburukia 53, Nº. 1, 2008, págs. 49-60

**Poetas vascas. Poemas de Blanca Sarasua, Aurelia Arkotxa, María Maizkurrena, Tere Irastortza, Eli Tolaretxipi y Castillo Suárez**

Blanca Sarasua, Aurélie Arcocha Scarcia, María Maizkurrena, Tere Irastortza, Eli Tolaretxipi, Castillo Suárez García

Zurgai: Euskal herriko olerkiaren aldizkaria : Poetas por su pueblo, ISSN 0214-7653, Nº 7 (JULIO), 2007 (Ejemplar dedicado a: Poesía corsa), págs. 59-82

**Gabriel María Aresti y Seguro:** Del lamento por la muerte de Ricardo Arregi

Aurélie Arcocha Scarcia

**Cien años de poesía:** 53 poemas en catalán, gallego y vasco : estructuras poéticas, pautas críticas / coord. por **Joana Sabadell Nieto; José-María Paz-Gago** (ed. lit.), **Lucía Fraga Rodríguez** (ed. lit.), **Jon Kortazar Uriarte** (ed. lit.), 2007, ISBN 978-3-03910-765-0, págs. 451-460

**Zortzi unibertso, zortzi idazle:** elkarrizketak

Ana Urkiza, Mariasun Landa Etxebeste, Aurélie Arcocha Scarcia, Yolanda Arrieta, Miren Lourdes Oñederra Olaizola, Itxaro Borda, Miren Agur Meabe, Arantxa Urretabizkaia, Laura Mintegi Lakarra  
Irun : Alberdania, inp. 2006. ISBN 84-96643-37-9

**Alegia euskarazkoa Frantziako Euskal Herrian 19. mendean.:** bi etsenplu, Archu (1848), Goyhetche (1852)

Aurélie Arcocha Scarcia

**Ikuspegi soziokulturala Euskal Herriko hezkuntzan: I. Hezkuntzaren gaineko**

berbaldiak / coord. por **Begoña Bilbao Bilbao, Miren Gurutze Ezkurdia Arteaga, Karmele Pérez Urraza**, 2006, ISBN 84-8373-889-9, págs. 43-50

**Iparraldeko azken aldiko literatura euskal literatur sistemaren argitan (eta vice versa):** zenbait hipotesi

Ur Apalategi Idirin

Lapurdum: euskal ikerketen aldizkaria, ISSN 1273-3830, N<sup>o</sup>. 10, 2005, págs. 1-18

**Eguiatéguy, lecteur de Ioannes Etcheberri de Ciboure**

Aurélie Arcocha Scarcia

Lapurdum: euskal ikerketen aldizkaria, ISSN 1273-3830, N<sup>o</sup>. 9, 2004 (Ejemplar dedicado a: XVIII. mendea Euskal Herrian letretan eta historian, Baionan 2004ko azaroaren 18 eta 19an, Bonnar museoan, Kolokioaren agiriak), págs. 49-66

**Manuscrits relatifs aux fables de La Fontaine et de Florian traduites et adaptées du français au basque labourdin par Martin Goyhetche (1791-1859)**

Aurélie Arcocha Scarcia

Lapurdum: euskal ikerketen aldizkaria, ISSN 1273-3830, N<sup>o</sup>. 8, 2003, págs. 25-83

**Florianen Fableac Goyhetche Apheçac Franxesctic escoara pherxutan itçuliac**

Aurélie Arcocha Scarcia

Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko Jardunaldiak XXI. mendearen atarian (I-II), Vol. 2, 2003, ISBN 84-95438-12-7, págs. 33-68

**La tempête en mer dans la littérature d'expression basque des XVIIe et XVIIIe siècles. I. Quatre textes emblématiques**

Aurélie Arcocha Scarcia

Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía, ISSN 1137-439X, N<sup>o</sup>. 21, 2002 (Ejemplar dedicado a: La pesca y el mar), págs. 269-278

**Thématique maritime et variations transtextuelles sur le motif de la tempête en mer dans les lettres basques des XVI - XVIIIe siècles**

Aurélie Arcocha Scarcia

Lapurdum: euskal ikerketen aldizkaria, ISSN 1273-3830, N<sup>o</sup>. 7, 2002, págs. 7-35

**Deux imprimeurs rochelais du XVIe siècle:** Pierre Haultin, imprimeur du "Testamentv Berria" (1571) traduit par Jean de Liçarrague, et Jean Portau, imprimeur de l'édition 1579 des "Voyages avantvrevx" du capitaine-pilote Martin de Hoyarsabal de Ciboure

Aurélie Arcocha Scarcia

Eugène Goyheneche: omenaldia = hommage / Jean-Claude Larronde (ed. lit.), 2001, ISBN 84-8419-929-0, págs. 53-83

---

•

**Septentrio**

Aurélie Arcocha Scarcia

Irún : Alberdania, 2001. ISBN 84-95589-24-9

**La mirada malévola de la luna en "La ahijada" de J. Mirande:** (1925-1972)

Aurélie Arcocha Scarcia

Breve historia feminista de la literatura española: (en lengua castellana) / coord. por Myriam Díaz Diocaretz, Iris M. Zavala Zapata, Vol. 6, 2000 (Breve historia feminista de la literatura español (en lengua catalana, gallega y vasca) ), ISBN 84-7658-577-2, págs. 312-331

---

•

**Géotemporalité de l'enfer dans le gvero de Pedro de Axular**

Aurélie Arcocha Scarcia

Lapurdum: euskal ikerketen aldizkaria, ISSN 1273-3830, N<sup>o</sup>. Extra 1, 1999 (Ejemplar dedicado a: Les lettres basques au temps d'Axular (1600-1650) : actes du colloque de Bayonne (12-13 avril 1999)), págs. 95-104

• Texto completo

**Itsassoco biayetaco othoicen araldea:** "La série de prières pour les voyages en mer" de Joannes Etcheberri de Ciboure (1627)

Aurélie Arcocha Scarcia

Lapurdum: euskal ikerketen aldizkaria, ISSN 1273-3830, N<sup>o</sup>. 4, 1999 (Ejemplar dedicado a: Hommage au Professeur Jean Haritschelhar), págs. 9-44

---

•

**Ternuaco Penac deitu idazkiaz zenbait ohar**

Aurélie Arcocha Scarcia

Lapurdum: euskal ikerketen aldizkaria, ISSN 1273-3830, N<sup>o</sup>. 3, 1998, págs. 103-123

---

•

**Bidaia-ikuspenak A. Abbadiaren 1835eko karnetean**

Aurélie Arcocha Scarcia

Antoine d'Abbadie, 1897-1997: congrès international, 1998, ISBN 84-89516-71-5, págs. 509-521

---

•

**L'orient comme virtualite dans le carnet de 1835 d'Antoine d'Abbadie**

Aurélie Arcocha Scarcia

Lapurdum: euskal ikerketen aldizkaria, ISSN 1273-3830, N<sup>o</sup>. 2, 1997, págs. 83-91

---

•

**Bernat Etxeparekoaren maitasunezko kopletaz**

Aurélie Arcocha Scarcia

Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca, ISSN-e 2445-0782, ISSN 1131-5350, N<sup>o</sup> 6, 1996, págs. 211-236

---

•

**Un texte inédit de René Lafon et Gil Reicher sur le Linguae Vasconum Primitiae (1545)**

Aurélie Arcocha Scarcia

Lapurdum: euskal ikerketen aldizkaria, ISSN 1273-3830, Nº. 1, 1996, págs. 87-119

•

**Oihenarten laugarren mendeurrena:** Euskaltzaindiaren XII. Biltzarra, 1994, ISBN 978-84-85479-73-3, págs. 401-450

• Aurelia Arcocha (ed.)

•

**Imaginaire et poésie dans "Maldan behera" de Gabriel Aresti**

Aurélie Arcocha Scarcia

Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo: International journal of basque linguistics and philology, ISSN 0582-6152, Vol. 27, Nº. 1, 1993, págs. 3-240

•

**Imaginaire et poésie dans "Maldan Behera" de Gabriel Aresti**

Aurélie Arcocha Scarcia

Diputación Foral de Guipúzcoa, 1993

•

**Irudien bizia J.B. Elizanbururen "Nere etxea"n**

Aurélie Arcocha Scarcia

Euskera ikerketa aldizkaria: Revista de Investigación de la Real Academia de la Lengua Vasca, ISSN 0210-1564, Liburukia 37, Nº. 1, 1992, págs. 109-135

•

**Xabier Lete, un poete basque sous le franquisme, une conception de la finalité du langage poétique**

Aurélie Arcocha Scarcia

Piarres Laffiteri omenaldia, 1983, ISBN 978-84-85479-21-4, págs. 155-173

• [Texto completo](#)

Información obtenida de la web: <https://www.item.ens.fr/publications/>

## Chercheurs associés



**Aurelia ARCOCHA**

**Professeure, Université Bordeaux-Montaigne**

chercheuse associée

Équipe Multilinguisme, Traduction, Création

L'Institut des textes et manuscrits modernes (ITEM), dirigé par Nathalie Ferrand, est une unité de recherche du Centre National de la Recherche Scientifique et de l'École normale supérieure (UMR 8132 CNRS / ENS), en partenariat avec l'Université de Poitiers, qui se consacre à l'étude de la genèse des œuvres de l'esprit, en littérature, linguistique, philosophie, art et sciences, à partir des traces empiriques laissées au cours du processus créateur.

La **Mission scientifique** de l'ITEM est donc de contribuer à la compréhension du processus créateur en analysant les documents qui témoignent de la genèse des œuvres. Ces archives — liasse de brouillons écrits à la plume d'oie, au crayon, au stylo à bille, tapuscrit, fichier numérique... — peuvent être d'ordre littéraire, mais elles peuvent également appartenir à d'autres domaines : cahiers de laboratoire qui enregistrent la mise en point et le déroulement d'une expérience scientifique, partitions musicales, esquisses et dessins préparatoires d'un tableau, rushs de films, captations photographiques, cahiers de mise en scène théâtrale, etc. Si le cœur des activités de l'Institut reste l'écriture littéraire des dix-neuvième et vingtième siècles à travers des corpus canoniques, les recherches se sont donc progressivement élargies. Cette extension porte d'abord sur les domaines esthétiques et intellectuels abordés, mais elle

vaut aussi pour les périodes historiques prises en compte (écritures du XVIIIe siècle), pour les univers culturels mobilisés (écritures latino-américaines, littérature francophone) et pour les pratiques socioculturelles associées à la création, par exemple les formes d'écriture plurielle impliquées dans la genèse éditoriale ou cinématographique. Analyser le document autographe (ou pas) pour comprendre les mécanismes de la production, élucider la démarche de l'écrivain, du savant, du penseur ou de l'artiste et les procédures qui ont permis l'émergence de l'œuvre, élaborer les concepts, méthodes et techniques permettant d'exploiter scientifiquement le précieux patrimoine que représentent les documents conservés dans les collections et archives, telle est donc la mission fondamentale de l'ITEM.

D'un point de vue **méthodologique**, il s'agit de réunir les traces matérielles des processus de création (pour les œuvres littéraires : carnets d'écrivains, brouillons, épreuves corrigées...), de les mettre en relation les unes avec les autres et avec les œuvres auxquelles ces processus ont généralement abouti, et notamment de les ordonner en une suite chronologique qui reflète les étapes de l'élaboration de l'œuvre. Dans ce domaine, l'évolution des pratiques liées au développement de l'écriture nativement numérique confronte l'ITEM à un nouveau défi. Le remplacement du papier par le silicium et du codex par le disque dur ou le cloud implique pour l'étude des dossiers génétiques des créateurs du XXIe siècle qu'on mette en place une codicologie des traces et des supports numériques totalement inédite en s'inspirant des principes et des méthodes de la computer forensics.

Après avoir recueilli les traces pertinentes, le rôle du chercheur est de les analyser et de les interpréter en tant qu'indices du déroulement de la genèse et d'identifier les éléments récurrents et les régularités. Pour prendre seulement le cas de l'écriture littéraire, on pourra ainsi reconnaître les mécanismes d'invention singuliers qui se déploient dans chaque dossier, dégager les éléments propres à une œuvre, un auteur, un genre, une époque, et les situer par rapport aux caractéristiques globales de l'écriture littéraire, voire de l'écriture en général. L'élucidation des processus créateurs pourra ainsi contribuer à une meilleure **interprétation des œuvres**.

Cet objectif premier a pour corollaire la nécessité pour le chercheur de permettre à la communauté des spécialistes aussi bien qu'au public d'accéder à ces objets scientifiques nouveaux en établissant des **éditions savantes, imprimées ou numériques**. Cette préoccupation a toujours été présente dans les activités de l'ITEM, mais avec le développement rapide des technologies de l'information, elle y occupe une place de plus en plus importante. Les sources primaires restent les documents originaux. Les éditions savantes — fac-similés, critiques ou génétiques — ont quant à elles une fonction pratique et heuristique en tant qu'aide à la réalisation d'études critiques et génétiques. Elles ont aussi une fonction épistémologique en rendant possible la validation de ces études par la communauté scientifique internationale.

Enfin, à partir des résultats obtenus par les différentes équipes du laboratoire et en relevant les point de convergence, on parvient à enrichir la **théorie génétique**, à poursuivre l'élaboration de ses concepts et de ses outils méthodologiques. La théorisation est donc à la fois le point d'origine du travail du généticien, qu'elle oriente et inspire, et son point d'aboutissement. Sans perdre de vue l'individualité des œuvres et des créateurs, il est possible d'avancer des principes d'explication tendant vers des degrés croissants de généralité et de proposer des cadres interprétatifs qui facilitent les comparaisons et font avancer en retour l'observation et l'interprétation des corpus.

Directrice : Nathalie Ferrand

Directeur adjoint : Pierre Musitelli

Secrétaire générale : Marie-Thérèse Mendy

ADRESSE SITE ULM	ADRESSE SITE POUCHET
ENS, 45 rue d'Ulm, 75005 Paris	59/61 rue Pouchet, 75017 Paris
Aurèle Crasson Marie-Thérèse Mendy, (assistante de prévention (AP)) Jean-Michel Roynard Elifsu Sabuncu Pyra Wise	Jean-Sébastien Macke Marie-Thérèse Mendy, (assistante de prévention (AP)) Jérémy Pedrazzi Claire Riffard Elifsu Sabuncu